




GURE BELARRRIEN IKARA



XXI. mendeko arazo larrienetako batean bihurtu da kutsadura akustikoa, Euskadi ez da atzean geratzen, lurralde osoan aurki ditzakegulako hainbat kasu. Adibidez Andoain, herri Gipuzkoar bat.

Noa Gonzalez eta Urko Olasagasti

Laburtuta, kutsadura akustikoa soinu gogaigarriek sortzen duten kutsadura mota bat da. Baina, zer nolako elementuek sortzen dute kutsadura akustikoa?

Adibide asko daude, eta gure herrietan ere, Andoainen adibidez, kasu asko aurki ditzakegu, eta honekin irtenbide asko ere sor ditzakegu. Uste baino gertuago aurkitzen dira kutsadura akustikoen kasuak, adibidez errepidetik gertu dauden etxeak, obretan daudenak, trenbidetik oso urruti ez daudenak etab.

Lehen esan dugun bezala, erakutsitako elementu guztien artean, aipatutako egoerak aztertuko ditugu. Jende asko da kutsadura akustikoarengatik gorra gelditu direnak une zehatz batean, hau gertatu da hainbat kasuetan, nagusiki hirietan. Kasu hauek ohikoenak ez izan arren, munduan zehar gertatzen dira.

Obrak

Obretan ez dauden hiri edo herriak aurkitzea zaila da, ala jabetxe bateko iskanbila batek auzo oso baten bizilagunen ametsa moztea. Adibide gogorragoak aurki ditzakegu, hitz egin dezagun Andoain herriaz. Herri bat izan arren, kasu asko aurkitzen ditugu. Herri inozo eta txikia dela pentsa dezakegu, arriskurik gabe, baina jakin dezazuen kutsadura akustikoaren biktimak barra-barra aurki ditzakegula.

Andoaindarren ikara

Kasurik ohikoenak, industrializazioaren biktimak diren pertsonak dira. Andoaineko autobaien ondoan baserri batzuk aurkitzen dira (horien artean sagardotegia ere). Orain dela urte batzuk, zela miressgarri batez inguratuak zeuden herrira iritsi arte. Baina orain supermerkatu eta industria eraikinak beraie ate ondora iritsi dira, gainera, hau dena hasi aurretik, baserri polit batek hartzen zuen atseden errepide ondoko zelaian, baina ingurunea industrializatzeko hau behera suntsitu zuten. Herriko merkatu asko bertan behera gelditu dira eta ixteko beharrean ikusi dira beraie buruak. Enpresa handiek herriaren merkatuak bereganatu dituzte. Badira beste kasu asko: obrak, autoak, musika ozena... Andoain ez da batere une erraz batean aurkitzen eta bere biztanleak ahaleginak egin beharko dituzte hemendik igarotzeko.

Datu bitxiak

- Nola kendu ditzakegu gure buruan kutsadura akustikoaren erruz gelditu zaizkigun soinu zatarrak? Adibidez, hartu atseden eta hartu zure eguneko pare bat minutu zure burmuina erlaxatzeko
- Kutsadura akustikoa nagusiki animaliei kutsatzen die, non horrek eragin dezake animalia hauek desagertzea.
- Mundu mailan, Espainia, bigarren leku kutsadura akustiko gehiena daukana da eta Europa mailan, lehenengo herrialde kutsadura akustiko gehiena daukana da.
- Kutsadura akustikoak sintoma batzuk sor ditzake, adibidez: arnasketa astindua, bultzotako azelerazioa, buruko mina, gastritis etb.



13 urte igaro dira Andoaineko udaletxeak soinuari aurre egingo ziola esan zuenetik

Hainbat urte igaro dira Andoaineko udaletxeak soinuaren kontra borrokatuko zuela agindu zuenetik, nola ez, soinuaren situazioa ez da batere hobetu eta orain dela hamahiru urteetan utzi zen berdin jarraitzen du guztiak. Nork daki zenbat urtez iraungo duen kutsadura akustikoaren gorakada honek. Hala ere, herriak aurreikusita zuen hau gertatuko zela.



“Neurria da legeak aldatu beharko liratekela eta lege horiek betetzea.”

Idoia Goikoetxea biologiako irakaslea

Zure ustez, zer nolako igoera izan du kutsadura akustikoak denboran zehar?

Zehatzik ez daukat baina argi eta garbi gaur egun duela urte batzuk baino askoz ere zarata gehiago dauka kaleetan. Geroztik eta kotxe gehiago daude, Gainera, jendeak ere musika geroztik eta gehiago entzuten du kalean altabozekin eta obra pilo bat daude. Guzti horrek nik esango nuke gorakada nabarmena ekarri duela.

Zer nolako inpaktua uste duzu egon dela Andoainen?

Orain Andoainen dagoen arazo nagusietako bat da. Nazional batetik gertu etxeak daudela eta orduan eremu horretan bizi den jendearentzako 24 orduz trafiko asko duen errepide baten soinua etengabe izatea da. Izugarritzko inpaktua dauka. Geroztik ere barneko trafikoa bada, eremuak obretan daudela.

Orduan esango nuke andoaingo egoera soinuaren inguruan edota kutsadura akustikoarekin arazo larriak dituela.

Non aurki ditzakegu kutsadura akustikoen adibide argienak gure herrian?

Esan dudan bezala obren trafikoa adibidez gero baita garaiaren arabera. Festak eta direnean badaude eremu batzuk tabernak dauden eremuak eta soinu gehiago egoten den plaza inguruak ere. gero hemen eskolako patioak nahiko ondo kokatuta daude, baina egia da eskolako patioak dauden inguru horietan ere bai, askotan kexatu egiten direla, ez bakarrik eskola orduetan, baizik eta ere eskolaz kanpo egiten diren ekintzetatik, orduan horiek izan daitezke beste arazo batzuk.

Ezagutzen al duzu kutsadura akustikoaren biktimak den norbait?

Nazionalaren ondoko etxeetan bizitzen den pertsona bat. Ikasle batek esan omen dit nazional 1 autopistaren ondoan bizi dela eta normalean zailtasunak edukitzen dituela udaran lo egiteko batez ere, lehio guztiak irekita dituenean.

Ondo pentsatuta, onartzen al duzu kutsadura akustikoa sortzen duzula?

Saiatzen naiz ahalik eta gutxien sortzen, musika baxua jartzen dut, garraio publikoan mugitzen saiatzen naiz, baina ala ere beti sortuko dugu kutsadura akustikoa nahiz eta nahi gabe izan.

Zein izan da ezagutu duzun kutsadura akustikoaren kasurik larriena?

Ni Beasainen bizi naiz eta Beasainen badago taberna kale bat, zazpi edo zortzi tabernez osatuta. Goiko etxeetan bizi diren pertsonen ostegunetik iganderako iskanbila hori entzun behar dute, hori izango litzake ezagutzen dudana larriena, ala ere ez da oso larria egia esanda.

Zein soluzio uste duzu dela egokiena kasu hauetan osasuna hobeto zaintzeko?

Neurria da legeak aldatu beharko liratekela eta lege horiek betetzea. Baita kontzientziak kanpaina batzuk egitea, bada jendea soinua kutsadura denik sinisten ez duena, beraz, jendearentzako kanpaina batzuk egin beharko lirateke.

Bururatzen al zaizkizu arazo honi aurre egiteko irtenbide batzuk?

Legeak betetzen ez direnean, isunak jartzen dira. Beraz, jendea txikitatik erakutsi beharko litzaioke (eskolan adibidez) gai honekin kontuz ibiltzea, nire ustez bidea kontzientziak da.



Elkarrizketaren audioa